



**2009/2010eko BIGARREN HEZKUNTZAKO
KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN, LANBIDE
HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN, HIZKUNTZA-
ESKOLA OFIZIALETAKO KATEDRADUN ETA
IRAKASLEEN, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOKO
KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN ETA DISEINUKO
KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO
FUNTZIONARIOAK LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

INFORMAZIO-OHARRA

Deialdia argitara ematen den data:

- 2009ko abenduaren 4ko EHAA.

Eskaerak aurkezteko epea:

2009ko abenduaren 5etik 23ra bitartean, biak barne.

Komenigarria da interesatuek Internet-en bidez balidatutako eskaeraren errezibo bat gordetzea edo paperez aurkeztutakoaren kopia datatua eta zigilatua.

Eskaerak aurkezteko tokia:

Internet-en bidez egindako eskaera automatikoki erregistratzen da eta paperez egindakoa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde Ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak sartzen dituen aldaketekin, 38.4. artikuluan aipatzen dituen egoitzetan.

Eskaeren formatua eta betetzeko era:

- Internet-en bidez: horretarako, posta pertsonalatuaren klabeak eskura izan beharko dira ezinbestean www.irakasle.net orrian ([eskaeraren alta Internet-en](#)) EHAAREN deialdian eskaerak aurkezteko epeak bukatzen duen egunen.
- **Salbuespen gisa**, paperez bidez aurkeztu ahal da Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzan, baita Hezkuntza Sailaren web orrian ere: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net, Pertsonalaren atalean-----> Pertsonal Hornikuntza- Irakasleak-> lekualdatze-lehiaketak.



Eskaera betetzeko, argibideen XIII. eranskinean adierazitakoaren arabera jokatu da. Halaber, eskaera-inprimakiak atzeko aldean sartzen dituen argibideak ere hartuko dira kontuan.

Agirien konpultsatzea:

Merezimenduak justifikatzeko agiri guztiek konpultsatzearen eginbidea eraman beharko dute.

Praktiketako funtzionarioek 2002ko eta 2008ko LEPtan parte hartzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko 2002ko azaroaren 8ko eta 2007ko azaroaren 19ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aginduen bidez deitutako hautatze-prozeduretan aukeratuak izan diren eta praktika-fasea ikasturte honetan bigarren kidegoan egiten ari diren hautagaiek hartu beharko dute derrigorrean parte; aukeratuak izan diren espezialitateetan, ez besterik, eskatu ahal izango dituzte lanpostuak.

Praktiketako funtzionario izendatzen dituen aginduan esleitzen zaien zerrendako zenbakiaren arabera esleituko zaizkie destinoak (2009/2010 lekualdatze-lehiaketaren zortzigarren oinarriaren 3. atala).

GARRANTZITSUA:

1. Gogorarazi behar da, parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharko dela alegatzen diren merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa, horretarako ezarritako epearen barruan. Epea pasa ondoren ez da inolako dokumentaziorik onartuko.

2. Eskaera Internet-en bidez betetzen bada, akatsak gertatzeko arrisku gutxiago dago. Eskaera paperez eginez gero, ahalik eta arretarik handiena jartzeko eskatzen da eskaerak betetzeko orduan, akatsak izan ez daitezten, eskaeren atalean batez ere. Gogoan izan ondorengo laukiak izan behar dituela, derrigorrean, ikastetxe-eskaera batek:

-8 zenbaki-kode + "C" letra (9 zenbaki herriaren kasuan)

-3 lauki espezialitaterako

-Lauki 1 euskara hizkuntzaren kodearentzako ("A" –HE 1 izan eta derrigorrezkotasun-eguna indarrean duten lanpostuen eskaeratarako-, "C" –HE 1 izan, baina derrigorrezkotasun-egunik ez duten lanpostuen eskaeratarako- ala "D" –HE 2 izan eta derrigorrezkotasun-eguna indarrean duten lanpostuen eskaeratarako))

(Musika eta Arte Eszenikoko katedradun eta irakasleen kidegoentzako izan ezik, "A", "C" eta "D" aukeraz aparte, hurrengoak aukera ditzakete ere bai: "B" -2011ko derrigortasun-datako HE 1 duten lanpostuak eskatzeko-, eta "E" -2011ko derrigortasun-datako HE 2 duten lanpostuak eskatzeko-).